# Ingurumeneko Kontseilu Sektoriala – 10. saioa
## Consejo Sectorial de Medio Ambiente – Sesión 10

| | |
|---|---|
| **Deialdia egin duena**<br>Convoca | **Donostiako Udala**<br>Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián |
| **Data, tokia eta ordua**<br>Fecha, lugar y hora | **2018ko otsailaren 27**/ 27 de febrero de 2018<br>**Udalbatza aretoa** /pleno<br>**18:30** / A las 18:30 horas |
| **Amaiera ordua**<br>Hora de finalización | **21:00 /** A las 21:00 horas |

## GAI ZERRRENDA:
## ORDEN DEL DÍA:

1. Aurreko aktaren onarpena (10 minutu)
2. Donostia Lagunkoia (15 minutu)
3. Hondakinen dokumentu zuzentzailea (15 minutu)
4. Hondakinen zuzenbide berria eta berrerabilpenerako prestaketa (15 minutu)
5. Aire Kalitatea: PM 2,5 partikulen azterketa neurgailu portatilen bitartez (15 minutu)
6. Kontseiluaren 2018ko plangintza (10 minutu)
7. Norberak lekarkeena (10 minutu)

1. Aprobación del acta anterior (10 minutos)
2. San Sebastián Amigable (15 minutos)
3. Documento Director de Residuos (15 minutos)
4. Directiva de Residuos, preparación para la reutilización (15 minutos)
5. Calidad del Aire: estudio de PM mediante medidores portátiles (15 minutos)
6. Planificación del Consejo para el 2018 (10 minutos)
7. Ruegos y Preguntas (10 minutos)

## BILERAN PARTE HARTU DUTE:
## HAN ASISTIDO A LA SESIÓN:

| | |
|---|---|
| **KONTSEILUKO LEHENDAKARITZA**<br>PRESIDENCIA DEL CONSEJO | **Ingurumeneko zinegotzi ordezkaria**<br>Concejala delegada de Medio Ambiente |
| TALDE POLITIKOEN ORDEZKARIAK<br>REPRESENTANTES GRUPOS POLÍTICOS | m<br>PSE<br>IRABAZI<br>EH BILDU |

| | |
|---|---|
| KONTSEILUKO KIDEAK<br>VOCALES DEL CONSEJO | 1. HERRITAR NORBANAKOA 1<br>2. EMAUS Fundación Social<br>3. INGURUGELA-CEIDA<br>4. COAVN-GI<br>5. EGUZKI<br>6. INGEBA<br>7. HARITZALDE<br>8. Aranzadi<br>9. DONOSTIA BIZIRIK<br>10. KALAPIE |
| **ETORRI EZ DIRELAKO DESENKUSATU DIRA**<br>EXCUSARON SU ASISTENCIA | HERRITAR NORBANAKOA 2 |

| | |
|---|---|
| **UDAL TEKNIKARIAK**<br>PERSONAL TÉCNICO MUNICIPAL | **Ingurumen Osasunaren eta Iraunkortasunaren ZerbitzuarenA burua**<br>Jefa del Servicio de Salud Ambiental y Sostenibilidad<br><br>**Ingurumeneko zuzendaria**<br>Director de Medio Ambiente<br><br>Herri Partaidetza saila, Udal Zeharkakotasunaren Arduraduna<br>Responsable de Transversalidad Municipal |
| **Gonbidatuak** | Consultoría Enea |
| **PARTAIDETZAREN DATUAK**<br>DATOS DE PARTICIPACIÓN | **Emakumezkoak /** Mujeres =**7**<br>**Gizonezkoak /** Hombres = **12** |
| **KONTSEILUKO IDAZKARITZA:**<br>SECRETARÍA DEL CONSEJO: | Técnico Superior Jurídico de Medio Ambiente<br>ingurumena@donostia.eus |

## Saioaren bilakaera:

## Desarrollo de la sesión:

| | |
|---|---|
| Bilerari ekin baino lehen, Kontseiluaren aurreko lehendakariak lehendakari berria aurkeztu du, Ingurumeneko zinegotzi ordezkaria ere badena, horrezaz gainera. | Antes del inicio de la sesión, el anterior Presidente del Consejo presenta a la nueva Presidenta que es a su vez la Concejala Delegada de Medio Ambiente. |
| **1. Aurreko bileraren akta onartzea** | **1. Aprobación del acta anterior** |
| Eguzkiren ordezkariak eta Irabazirenak haien saioen zati batzuk aldatzeko eskatu dute, eta halaxe egin da. | El representante de Eguzki y el de Irabazi solicitan la modificación de parte de sus intervenciones en la sesión anterior. Éstas se llevan a cabo. |
| **2. Donostia Lagunkoia** | **2. San Sebastián Amigable** |
| Udal Zeharkakotasunaren Arduradunak Donostia Lagunkoia Udalak sustatutako hiri plana aurkezten du. Honen bitartez, hiriko bizitzaren esparru guztietan populazioaren zahartzeak planteatzen dituen erronketan arreta jarri nahi du.<br><br>Planak, hiriaren lagunkoitasun maila hobetzea helburu duten hainbat proiektu eta jarduera jasotzen ditu, adineko pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko, eta, ondorioz, donostiar guztiona. Horretaz gain, komunitate parte hartze prozesuak ere sustatu nahi ditu, adineko pertsonek hiriko bizitzan parte hartzeko duten ahalmena txertatzeko. | La responsable de Transversalidad Municipal del Ayuntamiento expone "Donostia Lagunkoia", el cual es un Plan de Ciudad que, promovido por el Ayuntamiento de San Sebastián, pone el foco en los retos que nos plantea el envejecimiento de la población en todos los ámbitos de la vida urbana.<br><br>Aglutina proyectos y actividades que tienen como objetivo general mejorar la amigabilidad de la ciudad y, con ello, mejorar la calidad de vida de las personas mayores y, por extensión, de toda la sociedad donostiarra, generando procesos de participación comunitaria que buscan incorporar el enorme potencial que suponen estas personas en la vida de la ciudad. |
| **3. Hondakinen dokumentu zuzentzailea** | **3. Documento Director de Residuos** |
| Enea aholkularitza enpresakoek aurkeztu dute puntu hau. Haien aurkezpena bukatu eta gero, bokalek parte hartu dute. | La Consultora Enea presenta este punto. Tras el mismo se producen diversas intervenciones de los vocales. |
| **Aranzadi**ren ordezkariak azpimarratu du inportantzia handiagoa eman behar litzaiokeela eraikuntzako eta eraispeneko hondakinek ingurumenari egiten dioten kalteari. | El representante de **Aranzadi** incide en que se debiera dar más importancia al daño que producen los Residuos de Construcción y Demolición (RCD) en el medio ambiente. |
| **Donostia Bizirik**en ordezkariarentzat, Donostian gaika jasotzen dena oso gutxi da. Gehiago zehaztu behar dira etorkizunean egin behar diren ekintzak. Eta planaren segimena ere egin behar da, betetzen den edo ez ikusteko. | El representante de **Donostia Bizirik** cree que el porcentaje de recogida selectiva en Donostia es muy escaso. Se debieran concretar más las futuras acciones. Asimismo, ve necesario un seguimiento del plan para verificar su cumplimiento. |
| **Eguzki**ren ordezkariari oso pobrea iruditzen zaio dokumentua, balio handirik gabekoa; ez duelako oraino bilketa sistemaren sistema alternatiborik proposatzen eta 2025erako uzten dituelako helburuak. Era berean, esan du inguruko herri batzuk Donostiak baino ehuneko askoz handiagoak ari direla lortzen gaikako bilketan. | Al representante de **Eguzki** el documento le parece "muy pobre", de escaso valor, porque no propone un nuevo sistema de recogida alternativo al actual y pospone los objetivos al año 2025. También indica que otros pueblos vecinos están logrando unos porcentajes de recogida muy superiores a Donostia. |
| **Emaus**en ordezkariak ehunkiak biltzeko ontziak aldatzea proposatu du, eraginkortasun handiagoa | La representante de **Emaus** propone cambiar los contenedores de textil para lograr una mayor eficacia. Podrían tener dos bocas, una para la reutilización y otra |

izateko. Bi aho izan ditzakete: berriz erabiltzeko, bat, eta birziklatzeko, bestea. Eta bigarren eskuko gauzak erosteagatik % 21eko BEZa ordaindu beharra gehitxo dela ere esan du.

Gune Publikoetako eta Festa Jardueretako zinegotzi eskurodedunak nabarmendu du talde politiko guztiek onartu dutela plan zuzentzailea, eta udalerrian den edukiontzi hedadura hobetzearen alde egingo dela. Era berean, ehunkiak biltzeko modua hobetu egin behar dela uste du, eraginkorragoa izateko bilketa hori.

**4. Hondakinen zuzenbide berria eta berrerabilpenerako prestaketa**

Emausen ordezkariak aurkeztu du puntu hau. Otsailaren 23an ekonomia zirkularraren gainean behin-behingoz onartutako Europako zuzentarau berria esplikatu du, berrerabilpena eta birziklatzea bereziki.

**5. Airearen kalitatea: PM 2,5 partikulen azterketa neurgailu portatilen bitartez**

Kalapieren ordezkariak azterketaren gaineko xehetasun batzuk eman ditu, eta, bileran zirenek galdetu eta gero, beste gauza hauek ere esan ditu:
- Jendeari gehiago adierazi behar zaiola aireak zer kalitate duen une oro.
- Udalerriaren barru aldean ere egin dituztela neurketa batzuk.
- Altueraren arabera ez dela aldaketarik izan neurketen emaitzetan.

Donostia Biziriken ordezkariak esan du kezka ematen diola Rezolaren porlan-fabrikaren inguruko airearen kalitateak.

**6. Kontseiluaren 2018ko plangintza**

Kontseiluak aurten aztertu beharreko gaien plangintza aurkeztu du Ingurumeneko zuzendariak.

**7. Norberak lekarkeena**

Aranzadiren ordezkariarentzat ez da egokia amiantoa kentzen ari diren langileak buzoak jantzita eta maskarak jarrita aritzea eta, handik metro gutxira, Barandiaran Lizeoko ikasleak ezeren babesik gabe izatea.

Kontseiluko lehendakariak esan du Osalanek bilketa protokolo bat jarri zuela, baina galdetuko duela, edozein moduz ere.
Irabaziren ordezkariak gardentasuna izatea eskatu du

para el reciclaje. También indica que el IVA del 21% es desmesurado por la compra de artículos de segunda mano.

El Concejal delegado de Espacios Públicos y Actividades Festivas subraya que el plan director ha sido acordado por todo los grupos políticos y que se va apostar por mejorar la contenerización en el municipio. Asimismo cree que la recogida del textil debiera cambiarse para mejorar su eficacia.

**4. Directiva de Residuos, preparación para la reutilización**

La representante de Emaus presenta este punto. Explica el acuerdo provisional de la nueva directiva europea sobre economía circular que tuvo lugar el 23 de febrero del presente año, y se centra en los apartados de reutilización y reciclaje.

**5. Calidad del Aire: estudio de PM mediante medidores portátiles**

El representante de Kalapie explica los pormenores del estudio y tras diversas preguntas de los vocales aclara que:
- Debiera informarse más a los ciudadanos sobre la calidad del aire en cada momento.
- Que también se han realizado mediciones en el interior del municipio.
- Que no han registrado cambios en las mediciones en función de la altura.

El representante de Donostia Bizirik muestra su preocupación por la calidad del aire alrededor de la empresa cementos Rezola

**6. Planificación del Consejo para el 2018**

El Director de Medio Ambiente presenta la planificación de temas a abordar por el Consejo en el presente año.

**7. Ruegos y preguntas**

El representante de Aranzadi no ve apropiado que los trabajadores que están retirando el amianto vayan con buzo y máscaras y a pocos metros el alumnado de Liceo Barandiaran esten sin ninguna protección.

La presidenta del Consejo apunta que Osalan estableció un protocolo de recogida y que se interesará por la cuestión de todos modos.
El representante de Irabazi solicita transparencia en el mapa de residuos.
La representante de Emaus indica que sería adecuado

| | |
|---|---|
| hondakinen gaineko mapan.<br>Emausen ordezkariak adierazi du egoki litzatekeela hirian tenperaturaren inbertsioa noiz izaten den jakitea, kirolik ez egiteko kanpo librean.<br><br>21:00etan bukatu da bilera. | conocer cuando se dan momentos de inversión térmica en la ciudad para no practicar deporte en el exterior.<br><br>Finaliza la sesión a las 21:00 horas |